



▼ HERNANI

Sagar usainak eta trikitiak bere egin zituzten bazterrak

Tolareak antolatutako jaiarekin bat egin zuen III. Gazteen Trikitixa Txapelketak

Sagar biltzen hasteko sasoiaren bezperan eta txotx denboraldia- ren zain, jende ugari bildu zen atzo Hernaniko Gudarien enparantzara, udazkeneko eguzki epelak gonbidatuta sagardo trago pare bat hartu eta trikiti doinuez gozatzera. Gertuko beste txoko batean ere, Astigarragan, sagarra izan zen goizeko protagonista.


Amagüa MUJICA | HERNANI

Ezkiaga pasealekutik Gudarien enparantzara sartu bezain pronto atzerian zitekeen atzokoan festa giroa zela Hernanin. Tolareak -Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak- lizatutako gonbitari, jendeak ez ezik, eguraldiak ere txukun erantzun zion eta udazkeneko lehenengo eguzki ederki epeldu zuen jai. Sagar usainak eta plazaren txoko batean egosten ari ziren odolkiaren lurrinak bat egin zuten eta trikiti izan zuten lagun goiz parte guztian. Izan ere, Tolareak antolatutako egitarauarekin bat egin zuen Hernaniko Kriskitina Dantza Taldeak eta, hala, Gazteen Trikitixa Txapelketak atzo bete zuen hirugarren edizioa. Guztira sei bikotek parte hartu zuten txapelketan, guztiak 16 urteik beherakoak; hala ere, bikote bakarra baino ez zen bertakoa, Estitxi' Goikoetxeak eta Ixier Jauregik osatutakoa. Gainontze-koak Astecas, Ataun, Anoeta, Berastegi, Gaztelu, Areso, Andoain nahiz Lasartetik gerturatu ziren atzo Hernani aldera.

Baina festa berez parte handia izan zuen bertakoa. Hernaniko hamabi sagardogileren zukua dastatzeko aukera izan zen eta sagardoaren nondik norakoak hurbilagotik ezagutzeko edo, sagarren nahiz sagar produktuen erakusketak plazaren zati handia hartu zuen. Gazi-gorria, mutur-gorria, libresagarra, mantonia, piku-sagarra, pelestina nahiz maximela. Mota guztietako sa-


garrak biltzen zituen postua dotore atundu zuten atzoko festako Itxasburu sagardotegikoek. Bertako alaba den Igone Intxauspek GARARI adierazi zionez, «sagardotegi txikia da gurea eta eteko sagarra bakarrik erabiltzen dugu sagardoa egiteko». Izan ere, sagardotegi gehienek, nagusiki urtean litro asko ekoizten dituztenek, Euskal Herri- kanpo ekartzen baitute sagarra. Sagar saskien erdian etxean egindako irasagar ederra zegoen. Hala ere, Intxauspek aitortu zenez, «etxean sagarra gutxi jaten da eta sukaldean ere ez dugu gehiegi erabiltzen»; soinugilearen etxean, dantzaria herren.

Baina sagardoa egiteko prozesu guztiaren zertzeladak eskaintzen zituen atzo Gudarien enparantzak eta, beraz, ezin falta dolarea. Martuteneko Barkaiztegi sagardotegiko Joxe Mari Irizarrek ekarria zen dolarea, hala ere, Jon Ansorena gaztea zebilen dolareari eman eta eman, bertaraturikoei sagar muztio gozoa banatzeko lanean. Bederatzi urteko gaztea Rufino sagardotegi-ko biloba da eta urtero aitona-ekin gerturatzeko omen da Hernaniko jaira. Hala eta guztiz ere, Jon Ansorenak nahiago izaten du aiona sagardoa banatzen ari den bitartean Irizarrengana hurbildu eta dolarearekin saltsan ibiltzea. Joxe Mari Irizarrek go- goan duenez, «duela hiru urte Hernanira etortzen hasi ginenean Jon ez zen tolarera iritsi ere egi- ten, baina, hala ere hemen ibil- tzen zen beti bueltaka».



Jon Ansorena, Rufino sagardotegi-ko biloba, dolareari eman eta eman aritu zen goiz guztian.

Aur. Carlos RIZ



Astigarragako I. Sagar Festak zapore ona utzi du

A.M. | ASTIGARRAGA

Astigarragan ere sagararen ingurukoa izan da pasa herri den asteburuko jai, aurten lehenengoz Sagar Festa antolatu baitute bertako sagardogileek. Atzo goizak asteburu guztiko festa- ren arrastoak marrazten zituen, larunbata izan baitzen egun na- gusia, haatik, astigarragatarrak ez ziren nagituta ibili eta multzo polita elkartu zen Udaleko plaza inguruko sagardo das- taketara. Sagarra izaki jaialdiaren ardatz nagusia, leku berezia eskaini zioten atzo goizeko hitzorduan, eguzkiaren epeltasume- tik babestuta, Udaletxeko arkupetan fresko-fresko eta saskie- tan banatuta sagar mota ugari baitzuden. Artean, herriko sa- gardogileak sagardoa banatu eta banatu zebiltzan. Idiazabaigo gaitz lagunduta hamaiketako aproposa eskainiz atzokoan. Es- treinako Sagar Festa izanik, nahituez balantzea egin beharra dute antolatzaileek, datozen urtei begirako asmoak txukun bi- deratzeko. Peio Garcia Amianok, Intxaurrendoko Elkarte Gas- tronomiko kideak eta Sagar Festaren bultzatzaileak, adierazi zuenez, «presaka antolatu dugu aurtengo jai eta, hala ere, jen- dearen erantzuna benetan ona izan da. Datorren urtean ere errepikatze asmoa dugu eta berrikuntzekin gainera; pixka- naka, Astigarragako Sagar Festa Euskal Herri mailako jai iza- tea nahi baitugu».